

{ datorrena } Iñaki SOTO

Herritarrak ezagutzea da gakoa, zitalak barne

Gaztetan, Jarrairi esker, herrialdeko geografia eta idiosinkrasia ondo ezagutu genituen. Herri eta auzoetan ibiltzen ginen, militantzia eta abenturak jende desberdinarekin partekatzen. Era guztietako mugak zeharkatzen genituen *check-pointez* betetako mapa batean. Gazte asko ginen, eta gazte asko Jarraikoak ginen. Hori alde polita zen. Alde itsusiaz, gogorkeriaz, sarri hitz egin dugu.

Zuzendari karguari eta giro politikoaren aldaketei esker, beste jende asko ezagutu dut azken hamarkadan, lurralde horiei beste aurpegi batzuk gehituta. Horien artean, beste familia politikoetako pertsona asko dago, nireak ez bezalako jatorri eta anbizioak dituzten pertsonak. Lubakietatik kanpo lagunen bat ere egin dut. Elkarbizitza hobetsita, zenbait auzi alboratu ditugu. Jakina, ez gara inozoak: desadostasun sakonak ditugu.

Hala ere, ez nago ziur elkarbizitzak «beste sagardotegi batzuetako arauak» hobeto ezagutzea ekarri duen. Elkar ezagutze horrek ahula eta hauskorra izaten jarraitzen duela uste dut. Mundu guztiak ohitura du bere egiteko erak besteen etxeetara proiektatzeko. Hori da «gauzak egiteko modu natural» gisa ulertzen duguna.

Nire tradizio politikoan, gauza batzuk apurtzen badira, zailak dira konpontzen. Adibidez, jendilaje gisa portatzea onartezina da. Ez baduzu betiko hautsi nahi, hobe da urrutiegi ez joatea. Beste kultura politiko batzuetan, ordea, hori ez da horrela. Jendeak bi aurpegi izan ditzake eta biak, otso eta uso, balekoak izan daitezke. «Politika da, ez hartu serioegi», esango balute bezala. Hartara, edozer esan daiteke.

Jokabide horrek bultzatuta, asteren batean, EAJ nola edo hala erakundeetatik bota behar dela pentsatzen dut, iparra galdu dutelako. Urrutiago joan gabe, aste honetan gertatu zait, Andoni Ortuzarren zitalkeria ikusita. Beste asteren batean, ordea, PSOEn supre-

mazistekin akordiorik egitea ezinezkoa dela pentsatzen dut. Lehenik eta behin, haiek eragindako mina pairatu zutena bezain garrantzitsua dela ulertzen ez dutelako. Gero, hara non eta besteak datozen, ikastolak eta Opus Dei berdintzen. Kontuz, lagunekin eztabaida ez da beti erraza izaten. Egun batzuetan, noski, Uruguaira edo Norvegiara joatearekin amesten dut.

Gero, matematika demokratikoari begiratzen diot, eta beste familia horiekin gatazkak izan eta adostasunak lortzea beste aukerarik ez dagoela onartzen dut. Bide batez, abertzale batek mundu honetan duen ardura partikularra eta kolektiboa horixe dela sinesten dut: herriari eta jendarteari ekarpena egitea.

Fase historiko honetan, euskal jendartearen erronka nagusietako bat barne ezagutza zabaltzea da. Zentzu

Euskal jendartearen erronka nagusietako bat barne ezagutza zabaltzea da. Zentzuia antropologiko batean. Jende guztia ez baita guretzat «normala» den hori

ia antropologiko batean. Jatorri politiko, sozial eta kultural desberdinetako herritarrak ezagutzeko esfortzua egin behar da. Jende guztia ez baita guretzat «normala» den hori. Halaber, kontrakoaren erromantizazioak eta errealtatearen ukazioak muga nabarmenak dituzte. Euskal herritarron gehiengoak ahalik eta lurralde gehien zapaltzea eta ahalik eta hizkuntza gehienetan komunikatzeko gaitasuna izatea beharrezkoa da. Ezagutza horrek gure gatazkak eta adostasunak birdefinitzeko aukera emango liguke.

Hauteskundeak oso garrantzitsuak dira. Bozkatzeko aukera bat dira, eta ez da gutxi. Biharkoetan, asko dago jokoan, ez soilik herritarren ordezkariak, baita zital jokatzea noraino den onargarria ere. Hori bai, herri bat zitalekin ere eraiki behar da. Zenbaitek esaten dutenaren kontra, politika gauza serioa baita. •